



“Euskal Herria Sexual Herria bihurtzean sexiliatuak berez itzuliko dira”

Itziar Ziga

*Devenir perra, Sexual Herria...
eta segi aurrera!*

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Josu Santesteban

Hemen probokazioaren jainkosa!

Non dago probokazioa, nigan ala ni ikusi eta epaitzen nautenen begietan? Ze arraiio, nahia-go dut probokatzaila eta desegokia izan sistemaren moldean sartu baino.

Hasi gara sistemari errua botatzen. Orain elizari buruzko parrafada dator, ezta?

Ni atea naiz tendentzia satanikoekin, baina 2.000 urteko dominazio katolikoa gaineratik kendu ezinik gabiltza. Noiz arte irentsi behar dugu Munillak edo Rouco Varela euren ideia fanatikoekin bat egiten ez dutenekiko zabal-tzen duten gorrotoa?

Badakizu, Txanogorritxuren ipuina irentsi genuenetik...

Txanogorritxuk sinetsarazi digu etxean egur-tzen gaituenarekin oihanean topatu geneza-keenarekin baino hobeto gaudela. Zergatik dago dena moral burges eta kristautik bidera-tuta? Nolz dauzka *Pretty woman*-ek halako audientziak emakumeon artean?

Ez dakit zergatik, zure burua zentsuratzen ari zarela susmatzen dut.

Ez dut nire burua zentsuratzen, eta ni zentsu-ratzen saiatzen direnei hozka egiten diet.

Zure liburuaren azala Facebooketik desagerra-razi zuten ba!

Facebooki eskerrak eman beharrean nago, eurei esker ABCn atera nintzelako! Ez dut uste titi bat erakustea oso transgresorea

denik, baina ez pentsa, emakume feminista askok ere egin didate zaunka.

Ez da izango!

Ahaztu egiten zaie feministen zati handi batek pornografia defendatzen duela, eta denak ez garelako PSOEko feminista espainol, liberal eta heterosexualak. Lesbianak, putak, eta gainera euskaldunak... Gehiegi da eurentzat!

Lesbiana, puta, eta euskalduna. Jesus, Maria eta Jose!

Gure barruko puta erail eta sorgin-ehizan lapurtu ziguten luxuria. Aro politiko berri honekin, bada garaia gure baitako gudaritxo trabestitu eta putagoa izateko!

Aizu, PPK ETArengatik exiliatuei erraztu nahi die itzulera, ez sexiliatuei.

Euskal Herria Sexual Herria bihurtzean sexiliatuak berez itzuliko dira. Bitartean, erakun-deek gaizki egindakoa desegin dezatela, eta hortik aurrera egon daitezela geld, egiten dutena gaizki egiten dute eta.

Dena gaizki egiten dutenak zenbatzen hasiko bagina...

Medioetan kuota femeninoak eta kuota feministak daude, gaztelaniaz maskulinoa orogenerikoa da... Noiz integratuko dugu feminismoa gudan? Feminismoa ez da Emakunde, oso aktibismo anitz eta iraultzaile da. ■

